



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>



Finmado: IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA ETXETA Data: 2022/12/22 Fecha: 22/12/2022
AMALIA AGUIRRE MUNOZA (ALKATEA / ALCALDESA) Data: 2022/12/23 Fecha: 23/12/2022

Dekretua / Decreto:	5691 / 2022	Erref. / Ref.:	LA/mj
Gaia / Asunto:	Creación del Registro de Convenios y aprobación de sus normas de funcionamiento		
Arloa / Área:	IDAZKARITZA / SECRETARIA		
Interesduna / Interesado:			

1.- 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, sektore publikoaren lege-araubideari buruzkoak, zehatz-mehatz arautzen ditu administrazio-hitzarmenak. Ildo horri jarraiki, honakoak lantzen dira: definizioa, tipologia, baliozkotzeko baldintzak, gutxieneko edukia, iraupena, azkentzea eta ebazpenaren ondorioak.

Araudi horren arabera, hitzarmenak dira administrazio publikoek, erakunde publikoek eta lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin xede komun baterako hartuta sinatzen dituzten akordioak.

Ez dira hitzarmenak Jarduketako Protokolo Orokorrak edo antzeko tresnak, horiekin batera eduki orokorreko asmoen deklarazioak barnean hartzen badituzte edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek baterako helburu batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere horien ondorioz konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modurik formalizatzen ez bada.

2.- Era berean, 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, gaitasun nazionala duten tokiko administrazio funtzionarioen lege-araubidea arautzen duenak, 3.2.k) artikuluan fede publikoa emateko funtzioen artean Hitzarmenen Erregistroa eraman eta zaintzea xedatzen du.

3.- Gaur egun Getxoko Udalean hirigintza-hitzarmenei buruzko administrazio-erregistroa eta -artxiboa dago, abenduaren 29ko 7423/2006

1.- La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público establece una regulación pormenorizada de los convenios administrativos, abordando su definición, la tipología, los requisitos de validez, el contenido mínimo de que deben disponer, la duración, la extinción y los efectos de la resolución.

De conformidad con dicha normativa, son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.

Se excluyen de la consideración de convenios, los Protocolos Generales de Actuación o instrumentos similares que comporten meras declaraciones de intención de contenido general o que expresen la voluntad de las Administraciones y partes suscriptoras para actuar con un objetivo común, siempre que no supongan la formalización de compromisos jurídicos concretos y exigibles.

2.- Asimismo, el Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local de habilitación de carácter nacional establece en su artículo 3.2k) entre las funciones comprensivas de la fe pública la llevanza y custodia, en su caso, del Registro de Convenios.

3.- A fecha de hoy existe en el Ayuntamiento de Getxo el Registro y Archivo administrativo de los Convenios Urbanísticos, creado

Alkatetzaren Dekretu bidez sortua, 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak (2006ko uztailaren 20ko EHAA), zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko. Erregistro hori ebazpen honen bidez sortzen den Hitzarmen Erregistrotik bereizitako erregistro espezifiko eta berezia da.

4.- Aurreko guztia ikusirik, batetik, tokiko erakundearen ohiko jarduera antolatu eta arrazionalizatzeko eta, bestetik, 40/2015 Legearen babesean sinatutako hitzarmenak une oro idatziz jaso eta indarrean daudela bermatzeko, baita hartutako konpromisoak betetzeko ere tratamendu bategina izan dezan, beharrezkoa da Getxoko Udalaren Hitzarmen Erregistroa sortzea eta onartzea jarraibideak Udalaren ohiko jarduera antolatzeko eta koordinatzeko.

Eta legeak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- Getxoko Udalaren Hitzarmen Erregistroa sortzea.

BIGARRENA.- Getxoko Udaleko Hitzarmen Erregistroaren funtzionamendu-arauak onartzea, eranskin modura Dekretu honi gehitu zaion agiriarekin bat etorritz.

HIRUGARRENA.- Dekretu honen berri arlo guztiei ematea.

LAUGARRENA.- Dekretu hau Udalaren web orrian argitaratzea.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (<http://www.getxo.eus/> administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitaletan, ezkerrean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

mediante el Decreto de Alcaldía 7423/2006, de fecha 29 de diciembre, en cumplimiento de lo dispuesto en la Disposición Adicional Séptima de la Ley 2/2006 de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo (BOPV de 20 de julio de 2006), que regula los Convenios Urbanísticos. Este registro se configura como un registro específico y diferenciado del Registro de Convenios que se crea mediante la presente resolución.

4.- A la vista de cuanto antecede, y al objeto de tener un tratamiento unificado que favorezca la ordenación y racionalización de esta actividad convencional de la entidad local y que garantice en todo momento la constancia y vigencia de los convenios suscritos al amparo de la Ley 40/2015, así como el cumplimiento de los compromisos contraídos, es necesario crear el Registro de Convenios del Ayuntamiento de Getxo y aprobar las directrices para la ordenación y coordinación de la actividad convencional del Ayuntamiento.

Y en virtud de las atribuciones que me confiere la legalidad vigente,

RESUELVO

PRIMERO.- Crear el Registro de Convenios del Ayuntamiento de Getxo.

SEGUNDO.- Aprobar las normas de funcionamiento del Registro de Convenios de conformidad con el documento que se adjunta al presente Decreto a modo de anexo.

TERCERO.- Dar traslado del presente Decreto a todas las Áreas municipales.

CUARTO.- Publicar el presente Decreto en la página web municipal.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/> Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.